LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

LANDALUZE 27

Acta sesión participativa con ciudadanía

27 de mayo de 2026
18:00 - 20:00h
Personas asistentes: 31

Índice

1. Bienvenida y objetivos de la sesión

2. Primera dinámica: espacio físico

3. Segunda dinámica: gobernanza

4. Tercera dinámica: implicación del vecindario

5. Siguientes pasos

1. Bienvenida y objetivos de la sesión

La sesión comienza con la bienvenida a cargo de Nagore Gomara, Concejala de Participación y Barrios del Ayuntamiento de Laudio.

Se comunica que en la **Comisión Informativa del Área de Políticas Transversales** (jueves 21 de mayo de 2026) se ha informado sobre el proceso y que también se ha trabajado en el **Grupo de Pilotaje** del proyecto. Este espacio de pilotaje permite contrastar el avance del proceso, revisar los límites técnicos y administrativos y preparar las condiciones necesarias para que las propuestas vecinales puedan incorporarse de forma realista a la definición del futuro equipamiento.

A continuación, se presentan los objetivos de la sesión para trabajar en dos grandes ámbitos:

- **El espacio físico:** necesidades, posibilidades, criterios de adecuación y condiciones mínimas para poder poner en uso Landaluze 27.
- **La gobernanza y gestión del equipamiento:** responsabilidades, límites, modelo de funcionamiento y papel del Ayuntamiento y del vecindario.

El equipo facilitador realiza un breve repaso del acta de la sesión anterior con el objetivo de recuperar los principales acuerdos, ideas y orientaciones trabajadas hasta el momento.

2. Primera dinámica: espacio físico

El **criterio principal para la adecuación del local será la viabilidad del proyecto**. El objetivo municipal es avanzar hacia un mínimo viable que permita acondicionar el espacio y ponerlo en uso cuanto antes, sin esperar a una intervención más compleja que pudiera retrasar la apertura del espacio.

En este sentido, se informa de que no se contempla la segregación interior del local. La orientación inicial es mantener un equipamiento diáfano, flexible y polivalente, que pueda adaptarse a distintos usos comunitarios y facilitar una primera puesta en marcha del espacio.

Entre las actuaciones previstas o contempladas se señalan las siguientes:

- Adecuación de baños.
- Incorporación de un espacio de office con encimera, fregadero, nevera y microondas.
- Insonorización del conjunto del local.
- Acondicionamiento del suelo.
- Instalación de un sistema de acceso mediante medios electrónicos.
- Posibilidad de abrir una cristalera hacia la calle.
- Dotación de mobiliario y equipamiento básico necesario para el funcionamiento del espacio: armarios, sillas, mesas, pantalla y otros recursos básicos.

Se señala, asimismo, que el presupuesto disponible marcará el límite de esta primera fase de intervención. Aquellas actuaciones que no puedan incorporarse inicialmente deberán valorarse, en su caso, en fases posteriores.

La **primera dinámica** consiste en que cada grupo imagine una distribución posible del equipamiento, situando en el plano las actividades recogidas en la ficha de trabajo y añadiendo aquellos elementos que considere necesarios para el funcionamiento del espacio.

Primera propuesta de distribución

El primer grupo plantea un local comunitario flexible, abierto y polivalente organizado en varias zonas: una entrada con almacenamiento, un office con mesas informales, una zona tranquila para cursos y reuniones, una zona central multiusos para actividades de mayor formato o actividades corporales, y un espacio cerrado o seguro para guardar materiales.

La entrada se concibe como un espacio práctico de acogida, con armarios, perchas y lugar para dejar abrigos o materiales. A mano derecha se propone ubicar un pequeño office con nevera, encimera, microondas y posibilidad de

completarlo en el futuro. Junto a esta zona se plantean mesas para usos cotidianos e informales, como tomar café, jugar a cartas o conversar.

El fondo del local se reserva para actividades más tranquilas: cursos, lectura, idiomas, trabajo compartido o reuniones. La zona central se imagina como el corazón polivalente del espacio, adaptable a yoga, pilates, danza, conferencias, presentaciones u otras actividades grupales. También se menciona la conveniencia de incorporar una pantalla para apoyar actividades formativas, culturales o de reunión.

El grupo subraya la necesidad de contar con almacenamiento seguro, bien mediante armarios con llave, un almacén o un pequeño trastero. Este elemento se considera importante para guardar sillas, mesas, materiales de actividades y recursos propios del local.

En cuanto a las separaciones interiores, se plantea empezar con soluciones flexibles y de mínimo viable, como biombos, armarios separadores o elementos ligeros, aunque se deja abierta la posibilidad de valorar más adelante paredes móviles, soluciones acústicas o separaciones correderas si el presupuesto y la funcionalidad lo permiten.

Segunda propuesta de distribución

El segundo grupo imagina el local organizado alrededor de una zona de acogida y convivencia próxima a la entrada. Esta zona incluiría una sala de estar, una pequeña biblioteca y un office. Se concibe como un espacio cotidiano para tomar café, hablar, leer, encontrarse y favorecer relaciones informales entre vecinas y vecinos.

El office se plantea como una zona de apoyo básico, con fregadero, frigorífico, microondas y armario. No obstante, el grupo identifica que su ubicación deberá revisarse técnicamente, ya que el fregadero y el desagüe pueden estar condicionados por la ubicación de las bajantes, el baño y las posibilidades reales de instalación.

El espacio principal se dibuja con tres grandes zonas multiusos. Estas zonas podrían acoger actividades como yoga, gimnasia, ejercicios, danza, proyecciones, reuniones, talleres u otras actividades comunitarias. La lógica de la propuesta es que los espacios puedan separarse cuando sea necesario y abrirse cuando se requiera una superficie mayor.

El grupo propone utilizar biombos u otros elementos móviles para separar ambientes. También se plantea incorporar una zona con pantalla de televisión o proyección, así como un pequeño almacén al fondo para guardar mesas, sillas, esterillas y otros materiales necesarios para las actividades.

Criterios comunes identificados

A pesar de que las propuestas plantean distribuciones diferentes, aparecen varios criterios compartidos:

- El local debe ser flexible y permitir usos diversos.
- Conviene evitar una compartimentación excesiva o grandes obras iniciales.
- Hace falta una zona informal de estancia y convivencia.
- Se considera necesario contar con un office.
- Se necesita una zona amplia y despejada para actividades físicas, reuniones grandes, charlas o actividades culturales.
- Es conveniente reservar algún espacio más tranquilo para cursos, lectura, idiomas, reuniones o trabajo compartido.
- El almacenamiento seguro aparece como una necesidad clara.
- Las separaciones interiores deberían ser flexibles y adaptables.
- Se valora positivamente incorporar cristaleras o ventanales para mejorar la entrada de luz natural y la relación visual con el exterior.
- Se considera necesario ubicar adecuadamente la pantalla o zona de proyección, teniendo en cuenta la orientación del espacio, la movilidad del mobiliario, las actividades previstas y la posible convivencia simultánea de usos.
- La distribución final deberá ajustarse al presupuesto, a las condiciones técnicas del local y a los criterios municipales de viabilidad.

La dinámica muestra una orientación compartida hacia un equipamiento sencillo, flexible y progresivo. Los grupos no plantean un local muy compartimentado ni una intervención inicial excesivamente compleja, sino un espacio concebido para una implantación gradual, partiendo de un mínimo viable y evolucionando posteriormente en función de los usos reales, el presupuesto disponible y la experiencia acumulada.

Landaluze 27 se imagina como un lugar con varias capas de uso: un espacio cotidiano para estar y encontrarse, un espacio amplio para actividades comunitarias, un ámbito más tranquilo para formación o reuniones, y una infraestructura básica de apoyo que permita cuidar el funcionamiento del local.

3. Segunda dinámica: gobernanza

La **segunda dinámica** se centra en el modelo de gobernanza de Landaluze 27.

El punto de partida es que Landaluze 27 sea un equipamiento público con gestión mixta. Esto implica que el Ayuntamiento mantiene responsabilidades indelegables y que el vecindario puede asumir un papel activo en la propuesta, dinamización, cuidado y seguimiento del espacio.



Responsabilidades del Ayuntamiento

Durante la dinámica se recuerda que el Ayuntamiento mantiene las responsabilidades principales vinculadas al carácter público del equipamiento. Entre ellas se señalan los seguros, el mantenimiento, las autorizaciones, el cumplimiento normativo y las garantías generales del equipamiento público.

También se recoge que el Ayuntamiento puede participar en la programación, impulsar o apoyar actividades, establecer las condiciones de acceso y realizar seguimiento y validación del funcionamiento del espacio. En las aportaciones del grupo aparece, además, la posibilidad de valorar apoyos municipales como

subvenciones, recursos o programación pública, así como la eventual necesidad de acompañamiento en determinadas actividades.

Estas aportaciones refuerzan la idea de que el Ayuntamiento debe garantizar el marco, los límites, la seguridad jurídica y las condiciones materiales necesarias para que el equipamiento pueda ser usado de forma responsable.

Responsabilidades del grupo impulsor del espacio

En relación con el vecindario, sus responsabilidades principales son proponer actividades, participar en la programación, cuidar el espacio, mantener el vínculo con el barrio y hacer seguimiento.

A partir de las aportaciones recogidas se añaden varias ideas concretas: la necesidad de limpiar y dejar el espacio en condiciones después de cada uso, coordinarse con otras personas y grupos, programar actividades o fiestas vinculadas al barrio, y dar vida al espacio mediante una lógica progresiva de "ir viendo" cómo funciona.

También se plantea que el vecindario pueda recoger necesidades e ideas, dinamizar el uso del equipamiento, ayudar a gestionar el acceso de manera responsable y difundir la comunicación y las convocatorias.

Una cuestión que queda abierta es cómo organizar formalmente ese grupo ciudadano. En la dinámica aparece la posibilidad de constituirse como asociación, pero también la opción de reforzar el Consejo de Barrio como estructura de referencia. Esta cuestión no queda cerrada y deberá seguir trabajándose, ya que tiene implicaciones en la representación, la responsabilidad, el acceso y la interlocución con el Ayuntamiento.

Tareas compartidas

El bloque central del panel de trabajo impreso permite trabajar las tareas que deberán asumirse de manera compartida entre Ayuntamiento y vecindario. Entre ellas se identifican la programación, el calendario y sistema de reservas, el cuidado del espacio, la convivencia y las normas, y el seguimiento y mejora del funcionamiento.

La programación aparece como una tarea especialmente importante. El espacio deberá combinar propuestas vecinales, posibles actividades municipales y usos comunitarios diversos. Para ello, será necesario definir un sistema claro que permita ordenar actividades, evitar solapamientos y garantizar que el equipamiento siga respondiendo a su objetivo principal: ser un espacio vivo, abierto y comunitario.

El calendario y las reservas también se identifican como una pieza clave del futuro funcionamiento. El grupo entiende que la autonomía de uso debe ir acompañada de normas, trazabilidad y responsabilidad. En este sentido, se mantiene la idea de que el acceso pueda canalizarse a través del grupo ciudadano o del Consejo de Barrio, siempre dentro de un marco acordado con el Ayuntamiento y dentro de un sistema que permita saber quién usa el espacio, cuándo lo usa, para qué actividad y en qué condiciones queda después.

En relación con el cuidado del espacio, se subraya que no basta con abrir el local: será necesario definir responsabilidades concretas sobre limpieza, orden, uso de materiales, cierre, incidencias y cuidado de los elementos comunes.

También se considera fundamental trabajar normas de convivencia. Estas deberán abordar horarios, ruido, usos compatibles, condiciones de acceso, responsabilidades después de cada actividad y criterios para resolver posibles conflictos.

Por último, el seguimiento y las mejoras se entienden como una tarea continua. Se plantea que, una vez abierto el espacio, será necesario evaluar cómo funciona, qué problemas emergen, qué ajustes son necesarios y qué mejoras pueden incorporarse. En las notas aparece la importancia de tener en cuenta el coste de las mejoras y de no perder de vista las implicaciones de mantenimiento y gestión.

4. Tercera dinámica: implicación del vecindario

La **tercera dinámica** se centra en identificar el nivel de disponibilidad e implicación de las personas participantes de cara a la siguiente etapa del proceso. Se explica que, una vez finalizada esta fase de trabajo participativo, se abre un posible "momento valle" entre el cierre del proceso, la redacción del proyecto, la ejecución de la obra y la apertura efectiva del equipamiento.

Para trabajar esta cuestión, se utiliza una línea en el suelo que representa distintos niveles de compromiso con Landaluze 27. Las personas participantes se sitúan físicamente en el punto que mejor refleja su disposición actual. La dinámica no pretende cerrar compromisos formales, sino visualizar con quién se podría contar, en qué grado y para qué tipo de tareas durante la fase de transición.

Los niveles planteados son los siguientes:

- Sí, me gustaría implicarme y comenzar a colaborar ya con el Ayuntamiento. Esta opción implica participar desde ahora en la activación comunitaria y comenzar a impulsar algunas actividades mientras se desarrolla el proyecto de obra y la futura adecuación del espacio.
- Sí, podría colaborar puntualmente en eventos o tareas específicas.
- Tal vez en el futuro, cuando el espacio esté más avanzado.
- Prefiero participar como persona usuaria del espacio cuando este se abra.

La respuesta del grupo muestra una disposición significativa a mantener la implicación. Un primer grupo de personas se sitúa en la opción de mayor compromiso, expresando interés en comenzar a colaborar desde ahora con el Ayuntamiento y en explorar posibles actividades durante el periodo previo a la apertura del equipamiento.

Otro grupo se sitúa en la opción de colaboración puntual, mostrando disponibilidad para apoyar eventos, tareas concretas o momentos específicos del proceso, aunque sin asumir una implicación continuada desde el inicio.

Un número menor de personas se coloca en las opciones de implicación futura o de participación como usuarias del espacio una vez abierto. Esta distribución permite identificar que existe una base vecinal activa sobre la que podría apoyarse la fase valle, siempre que se definan bien los próximos pasos, las tareas posibles y el marco de colaboración con el Ayuntamiento.

5. Siguientes pasos

Al cierre de la sesión se recuerdan los próximos pasos del proceso:

- Mantener activa la comunicación con las personas interesadas.
- Informar al vecindario de la existencia de un canal de difusión de WhatsApp donde se compartirá todo lo relacionado con el proceso: https://labur.eus/Landaluze27WA
- Continuar con la **siguiente sesión de trabajo** prevista para el **3 de junio, en el propio equipamiento a las 18:00 horas**. En esta sesión se trabajará sobre actividades para dinamizar el barrio, acciones previas a la apertura del espacio, así como una primera conversación sobre la identidad del espacio.

También se recuerda que todas las propuestas recibidas deberán ser posteriormente ordenadas, priorizadas y contrastadas desde criterios técnicos, jurídicos, económicos y de convivencia, para que puedan servir de base al futuro anteproyecto del equipamiento.

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

LANDALUZE 27

Herritarrekin egindako parte-hartze saioaren akta

2026ko maiatzaren 27a
18:00 - 20:00
Parte-hartzaileak: 31

Aurkibidea

1. Ongietorria eta saioaren helburuak
2. Lehen dinamika: espazio fisikoa
3. Bigarren dinamika: gobernantza
4. Hirugarren dinamika: auzotarren inplikazioa
5. Hurrengo urratsak

1. Ongietorria eta saioaren helburuak

Saioa Nagore Gomara Laudioko Udaleko Parte-hartze eta Auzoen arloko zinegotziaren ongietorriarekin hasi da.

Jakinarazi da **Zeharkako Politiken Arloko Informazio Batzordean** (2026ko maiatzaren 21a, osteguna) prozesuari buruzko informazioa eman dela, eta proiektuaren **Lantalde Pilotuan** ere lan egin dela. Pilotaje-gune horrek aukera ematen du prozesuaren aurrerapena kontrastatzeko, muga tekniko eta administratiboak berrikusteko eta beharrezko baldintzak prestatzeko, auzotarren proposamenak etorkizuneko ekipamenduaren definizioan modu errealistan txertatu ahal izateko.

Jarraian, saioaren helburuak aurkeztu dira, bi eremu nagusitan lan egiteko:

- **Espazio fisikoa:** Landaluze 27 erabileran jartzeko beharrak, aukerak, egokitzapen-irizpideak eta gutxieneko baldintzak.

- **Gobernantza eta ekipamenduaren kudeaketa:** erantzukizunak, mugak, funtzionamendu-eredua eta Udalaren eta auzotarren eginkizuna.

Talde dinamizatzaileak aurreko saioko aktaren berrikuspen laburra egin du, orain arte landutako akordio, ideia eta orientabide nagusiak berreskuratzeko helburuarekin.

2. Lehen dinamika: espazio fisikoa

Lokala egokitzeko irizpide nagusia proiektuaren bideragarritasuna izango da. Udalaren helburua gutxieneko esku-hartze bideragarri baterantz aurrera egitea da, espazioa egokitu eta lehenbailehen erabileran jartzeko, espazioaren irekiera atzeratu lezakeen esku-hartze konplexuago baten zain egon gabe.

Ildo horretan, jakinarazi da ez dela aurreikusten lokalaren barruko banaketarik egitea. Hasierako orientazioa banaketarik gabeko ekipamendu ireki, malgu eta balioaniztuna mantentzea da, komunitate-erabilera desberdinetara egokitu ahal izango dena eta espazioa lehen aldiz martxan jartzea erraztuko duena.

Aurreikusitako edo kontuan hartutako jarduketen artean, honako hauek aipatu dira:

- Komunak egokitzea.
- Office-gune bat egokitzea, sukalde-gainekoa, harraska, hozkailua eta mikrouhin-labea dituena.
- Lokal osoa intsonorizatzea.
- Zorua egokitzea.
- Bitarteko elektroniko bidezko sarbide-sistema instalatzea.
- Kalera begira beirate bat irekitzeko aukera.
- Altzarien hornidura eta espazioaren funtzionamendurako behar den oinarrizko ekipamendua: armairuak, aulkiak, mahaiak, pantaila eta oinarrizko beste baliabide batzuk.

Era berean, adierazten da erabilgarri dagoen aurrekontuak markatuko duela esku-hartzearen lehen fase horren muga. Hasieran sartu ezin diren jarduketak, hala badagokio, ondorengo faseetan baloratu beharko dira.

Lehenengo dinamika talde bakoitzak ekipamenduaren banaketa posible bat irudikatzean datza, lan-fitxan jasotako jarduerak planoan kokatuz eta espazioaren funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen dituen elementuak gehituz.

Lehenengo antolamendu-proposamena

Lehen taldeak komunitate-lokal malgu, ireki eta balioaniztun bat proposatu du, hainbat gunetan antolatua: biltegiratze-gunea duen sarrera bat, mahai informalak dituen office-gune bat, ikastaroetarako eta bileratarako gune lasai bat, formatu handiagoko jardueretarako edo gorputz-jardueretarako erabilera anitzeko erdiko gune bat, eta materialak gordetzeko gune itxi edo segurua.

Sarrera harrera-gune praktiko gisa ulertzen da, armairuekin, esekitokiekin eta berokiak edo materialak uzteko tokiarekin. Eskuinaldean office-gune txiki bat kokatzea proposatzen da, hozkailuarekin, sukalde-gainekoarekin,

mikrouhin-labearekin eta etorkizunean osatzeko aukerarekin. Gune horren ondoan eguneroko erabilera informaletarako mahaiak proposatzen dira, hala nola kafea hartzeko, kartetan jolasteko edo solasean aritzeko.

Lokalaren atzealdea jarduera lasaiagoetarako gordetzen da: ikastaroak, irakurketa, hizkuntzak, lan partekatua edo bilerak. Erdiko gunea espazioaren erdigune balioaniztun gisa irudikatzen da, yoga, pilates, dantza, hitzaldi, aurkezpen edo bestelako talde-jardueretara egokitzeko modukoa. Prestakuntza, kultura edo bileretako jarduerei laguntzeko pantaila bat txertatzearen komenigarritasuna ere aipatzen da.

Taldeak biltegiratze segurua izateko beharra azpimarratzen du, giltzadun armairuen, biltegi baten edo trasteleku txiki baten bidez. Elementu hori garrantzitsutzat jotzen da aulkiak, mahaiak, jardueretako materialak eta lokalaren berezko baliabideak gordetzeko.

Barruko bereizketei dagokienez, irtenbide malgu eta gutxieneko bideragarriekin hastea planteatzen da, hala nola bionboak, armairu bereizleak edo elementu arinak. Dena den, irekita uzten da aurrerago horma mugikorrak, irtenbide akustikoak edo bereizketa lerragarriak balioesteko aukera, baldin eta aurrekontuak eta funtzionaltasunak horretarako aukera ematen badute.

Bigarren antolamendu-proposamena

Bigarren taldeak lokala sarreratik hurbil dagoen harrera- eta bizikidetza-gune baten inguruan antolatuta irudikatzen du. Gune horrek egongela bat, liburutegi txiki bat eta office bat izango lituzke. Eguneroko espazio gisa ulertzen da, kafea hartzeko, hitz egiteko, irakurtzeko, elkartzeko eta auzotarren arteko harreman informalak sustatzeko.

Officea oinarrizko laguntza-gune gisa planteatzen da, harraskarekin, hozkailuarekin, mikrouhin-labearekin eta armairuarekin. Hala ere, taldeak adierazi du haren kokapena teknikoki berrikusi beharko dela, harraska eta hustubidea zorrotenen, komunaren eta instalaziorako benetako aukeren kokapenak baldintzatuta egon daitezkeelako.

Espazio nagusia erabilera anitzeko hiru gune handirekin irudikatzen da. Gune horiek yoga, gimnasia, ariketak, dantza, proiekzioak, bilerak, tailerrak edo bestelako komunitate-jarduerak har ditzakete. Proposamenaren logika da espazioak beharrezkoa denean bereizi ahal izatea eta azalera handiagoa behar denean ireki ahal izatea.

Taldeak giroak bereizteko biomboak edo bestelako elementu mugikorrak erabiltzea proposatzen du. Telebista- edo proiekzio-pantaila duen gune bat txertatzea ere planteatzen da, baita atzealdean biltegi txiki bat jartzea ere,

mahaiak, aulkiak, esterillak eta jardueretarako beharrezkoak diren bestelako materialak gordetzeko.

Identifikatutako irizpide komunak

Proposamenek banaketa desberdinak planteatzen dituzten arren, hainbat irizpide partekatu agertzen dira:

- Lokalak malgua izan behar du eta hainbat erabilera ahalbidetu behar ditu.
- Ez da komeni hasierako zatitze handiegirik edo obra handirik egitea.
- Egonaldirako eta bizikidetzarako gune informal bat behar da.
- Office-gune bat izatea beharrezkoa da.
- Eremu zabal eta irekia behar da jarduera fisikoetarako, bilera handietarako, hitzaldietarako edo kultura-jardueretarako.
- Ikastaroak, irakurketa, hizkuntzak, bilerak edo lan partekatua egiteko toki lasaiago bat gordetzea komeni da.
- Biltegiratze segurua beharrezkoa dela argi geratu da.
- Barruko bereizketak malguak eta moldagarriak izan beharko lirateke.
- Positiboki baloratzen da beirateak edo leiho handiak txertatzea, argi naturalaren sarrera eta kanpoaldearekiko ikusizko harremana hobetzeko.
- Beharrezkotzat jotzen da pantaila edo proiekzio-gunea behar bezala kokatzea, espazioaren orientazioa, altzarien mugikortasuna, aurreikusitako jarduerak eta erabilera batzuk aldi berean egin ahal izatea kontuan hartuta.
- Azken banaketa aurrekontura, lokalaren baldintza teknikoetara eta udalaren bideragarritasun-irizpideetara egokitu beharko da.

Dinamikak ekipamendu xume, malgu eta progresibo baterantz doan orientazio partekatua erakusten du. Taldeek ez dute planteatzen oso konpartimentatutako lokal bat ezta hasierako esku-hartze konplexuegi bat ere, baizik eta ezarpen gradualerako pentsatutako espazio bat, gutxieneko esku-hartze bideragarri batetik abiatuta eta ondoren benetako erabileren, eskuragarri dagoen aurrekontuaren eta metatutako esperientziaren arabera bilakatuz.

Landaluze 27 hainbat erabilera-geruza dituen leku gisa irudikatzen da: egoteko eta elkartzeko eguneroko espazio bat, komunitate-jardueretarako espazio zabal bat, prestakuntzarako edo bileretarako eremu lasaiago bat, eta lokalaren funtzionamendua zaintzea ahalbidetuko duen oinarrizko laguntza-azpiegitura bat.

3. Bigarren dinamika: gobernantza

Bigarren dinamikak Landaluze 27ko gobernantza-eredua du ardatz.

Abiapuntua da Landaluze 27 kudeaketa mistoko ekipamendu publikoa izatea. Horrek esan nahi du Udalak eskuordetu ezin diren erantzukizunak bere gain dituela eta auzotarrek eginkizun aktiboa har dezaketela espazioaren proposamenean, dinamizazioan, zaintzan eta jarraipenean.



Udalaren erantzukizunak

Dinamikan zehar gogorarazi da Udalak ekipamenduaren izaera publikoari lotutako erantzukizun nagusiei eusten diela. Horien artean aseguruak, mantentze-lanak, baimenak, araudia betetzea eta ekipamendu publikoaren berme orokorrak aipatzen dira.

Jaso da, halaber, Udalak programazioan parte har dezakeela, jarduerak bultzatu edo babestu ditzakeela, sarbide-baldintzak ezarri eta espazioaren funtzionamenduaren jarraipena eta baliozkotzea egin ditzakeela. Taldearen ekarpenetan agertzen da, gainera, udal-laguntzak baloratzeko aukera, hala nola

dirulaguntzak, baliabideak edo programazio publikoa, bai eta jarduera jakin batzuetan laguntza emateko balizko beharra ere.

Ekarpen horiek indartu egiten dute Udalak esparrua, mugak, segurtasun juridikoa eta ekipamendua modu arduratsuan erabili ahal izateko beharrezkoak diren baldintza materialak bermatu behar dituela dioen ideia.

Espazioaren talde sustatzailearen erantzukizunak

Auzotarren kasuan, haien erantzukizun nagusiak jarduerak proposatzea, programazioan parte hartzea, espazioa zaintzea, auzoarekiko lotura mantentzea eta jarraipena egitea dira.

Jasotako ekarpenetatik abiatuta hainbat ideia zehatz gehitzen dira: erabilera bakoitzaren ondoren espazioa garbitu eta baldintza egokietan uzteko beharra, beste pertsona eta talde batzuekin koordinatzea, auzoari lotutako jarduerak edo jaiak programatzea, eta espazioari bizia ematea, haren funtzionamendua pixkanaka ikusi eta egokitzeko.

Halaber, planteatzen da auzotarrek beharrak eta ideiak jaso ahal izatea, ekipamenduaren erabilera dinamizatzea, sarbidea modu arduratsuan kudeatzen laguntzea eta komunikazioa eta deialdiak zabaltzea.

Irekita geratzen den gai bat da talde herritar hori formalki nola antolatu. Dinamikan elkarte gisa eratzeko aukera agertzen da, baina baita Auzo Kontseilua erreferentziazko egitura gisa indartzeko aukera ere. Gai hori ez da itxitzat eman eta lantzen jarraitu beharko da, ordezkaritzan, erantzukizunean, sarbidean eta Udalarekiko solaskidetzan ondorioak baititu.

Zeregin partekatuak

Inprimatutako lan-panelaren atal nagusiak aukera eman du Udalak eta auzotarrek elkarrekin egin beharreko lanak lantzeko. Horien artean programazioa, egutegia eta erreserba-sistema, espazioaren zaintza, bizikidetza eta arauak, eta funtzionamenduaren jarraipena eta hobekuntza identifikatu dira.

Programazioa bereziki garrantzitsua den zeregin gisa agertu da. Espazioak auzotarren proposamenak, balizko udal-jarduerak eta komunitate-erabilera askotarikoak uztartu beharko ditu. Horretarako, beharrezkoa izango da sistema argi bat definitzea, jarduerak antolatzeko, gainjartzeak saihesteko eta ekipamenduak bere helburu nagusiari erantzuten jarraitzen diola bermatzeko: espazio bizi, ireki eta komunitarioa izatea.

Egutegia eta erreserbak ere etorkizuneko funtzionamenduaren funtsezko pieza gisa identifikatu dira. Taldeak ulertzen du erabilera autonomoak arauekin, trazabilitatearekin eta erantzukizunarekin batera joan behar duela. Ildo horretan,

sarbidea herritar-taldearen edo Auzo Kontseiluaren bidez bideratu ahal izatearen ideia mantentzen da, betiere Udalarekin adostutako esparru baten barruan, eta espazioa nork, noiz, zertarako eta zer baldintzatan erabiltzen duen jakitea ahalbidetuko duen sistema baten bidez.

Espazioaren zaintzari dagokionez, azpimarratzen da ez dela nahikoa lokala irekitzea: beharrezkoa izango da garbiketari, ordenari, materialen erabilerari, itxierari, gorabeherei eta elementu komunen zaintzari buruzko erantzukizun zehatzak definitzea.

Bizikidetza-arauak lantzea ere funtsezkotzat jotzen da. Arau horiek ordutegiak, zarata, erabilera bateragarriak, sarbide-baldintzak, jarduera bakoitzaren ondorengo erantzukizunak eta balizko gatazkak konpontzeko irizpideak jaso beharko dituzte.

Azkenik, jarraipena eta hobekuntzak etengabeko zeregin gisa ulertu dira. Planteatzen da, espazioa ireki ondoren, beharrezkoa izango dela ebaluatzea nola funtzionatzen duen, zer arazo azaleratzen diren, zer egokitzapen beharrezkoak diren eta zer hobekuntza txerta daitezkeen. Oharretan agertzen da hobekuntzen kostua kontuan hartzearen eta mantentze- eta kudeaketa-ondorioak bistatik ez galtzearen garrantzia.

4. Hirugarren dinamika: auzotarren inplikazioa

Hirugarren dinamika prozesuaren hurrengo etapari begira parte-hartzaileen prestutasun- eta inplikazio-maila identifikatzean oinarritzen da. Azaltzen da, lan parte-hartzaileko fase hau amaitu ondoren, balizko “trantsizio-une” bat sortzen dela prozesuaren itxieraren, proiektuaren idazketaren, obraren gauzatzearen eta ekipamenduaren benetako irekieraren artean.

Gai hori lantzeko, lurrean lerro bat erabiltzen da, Landaluze 27rekiko konpromiso-maila desberdinak irudikatzen dituena. Parte-hartzaileak fisikoki kokatzen dira beren egungo prestasuna hobekien islatzen duen puntuan. Dinamikaren helburua ez da konpromiso formalak ixtea, baizik eta trantsizio-fasean norekin konta daitekeen, zer mailatan eta zer motatako zereginetan ikusaraztea.

Proposatutako mailak honako hauek dira:

- Bai, inplikatu eta jada Udalarekin elkarlanean hastea gustatuko litzaidake. Aukera horrek esan nahi du hemendik aurrera komunitate-aktibazioan parte hartzea eta jarduera batzuk bultzatzen hastea, obra-proiektua eta espazioaren etorkizuneko egokitzapena garatzen diren bitartean.
- Bai, unean-unean lagundu nezake ekitaldi edo zeregin zehatzetan.
- Agian etorkizunean, espazioa aurreratuagoa dagoenean.
- Nahiago dut espazioa irekitzen denean erabiltzaile gisa parte hartu.

Taldearen erantzunak inplikazioari eusteko prestasun handia erakusten du. Pertsona talde bat konpromiso handieneko aukeran kokatzen da, Udalarekin hemendik aurrera elkarlanean hasteko eta ekipamendua ireki aurreko aldian balizko jarduerak aztertzeko interesa adieraziz.

Beste talde bat lankidetza puntualaren aukeran kokatzen da, ekitaldietan, zeregin zehatzetan edo prozesuko une jakinetan laguntzeko prestasuna erakutsiz, nahiz eta hasieratik inplikazio jarraiturik bere gain hartu gabe.

Pertsona gutxiago kokatu dira etorkizunean inplikatzeko edo, behin gunea irekita, erabiltzaile gisa parte hartzeko aukeretan. Banaketa horri esker jakin daiteke auzotarren talde aktibo bat dagoela, eta trantsizio-unearen euskarri izan daitekeela, baldin eta ondo zehazten badira hurrengo urratsak, egin daitezkeen zereginak eta Udalarekin lankidetzan aritzeko esparrua.

5. Hurrengo urratsak

Saioaren amaieran prozesuaren hurrengo urratsak gogorarazi dira:

- Interesa duten pertsonekin komunikazioari eustea.
- Auzotarrei prozesuarekin lotutako informazio guztia partekatuko den WhatsApp kanal bat dagoela jakinaraztea: https://labur.eus/Landaluze27WA
- **Ekainaren 3**rako aurreikusitako **hurrengo lan-saioa** egitea, **ekipamenduan bertan**, **18:00etan**. Saio horretan auzoa dinamizatzeko jarduerak, espazioa ireki aurreko ekintzak eta espazioaren identitateari buruzko lehen elkarrizketa landuko dira.

Halaber, gogorarazi da jasotako proposamen guztiak gerora ordenatu, lehenetsi eta kontrastatu beharko direla irizpide tekniko, juridiko, ekonomiko eta bizikidetzari lotutakoen arabera, ekipamenduaren etorkizuneko aurreproiektuaren oinarri izan daitezen.